

# NORANTZA

## JOSE MORALES EIZIEKO LEHENDAKARIOREA

### «Euskal itzulpengintza sustatzea dugu helburu»

EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreten Elkarte da. Helburu nagusia euskal itzulpengintza sustatu eta nabarmentzea du.

lak erabiliz, eztabaida gune moduko bat dago bertan eta horrek itzultzaileen arteko harremanak eta informazioaren truke gauzatzeko bidea eskaintzen du.

itzulpengintzak berebiziko garrantzia du. Hori dela eta, itzulpengintza sustatzea eta honek duen garrantzia gizartearen aurrean nabarmentzea da lortu nahi duguna.

**Zein da itzulpengintzak Euskal Herrian bizi duen egoera?**

Gure elkartearen euskarara edota euskaratik itzultzen duten itzultzaile guztiak du lekua. Bestalde, eta itzulpengintzan Euskal Herrian bizi duen egoerari dagokionez, duela gutxi arte gutxietsita egon da eta ez zaito duen garrantzia eman. Gainera, bi hizkuntza ofizial dituzten lurraldeetan itzulpengintzaren garrantzia ez jabetzea oso larria dela pentsatzen dut. Izan ere, kasu horietan

**Itzulpen lizentziatura sortzeko asmoa du EHUk. Zer pentsatzen duzue horren inguruan?**

Esan bezala, prestakuntzaren arloa ikastaroen bidez lantzen dugu, baina Euskal Herrian ez da orain artean behintzat lizentziaturarik egon eta, beraz, ikastera, kanpora joan behar izaten zuen jendeak. Lizentziatura sortzeko nahia aspaldidanik eskatua genuen guk eta, azkenean, badirudi martxan jartzeko asmotan dabilzala. Dударik gabe, itzulpen lizentziatura izatea ezinbestekoa da gurea bezalako herri batentzat. Gainera, itzultzaileen profesionaltasuna eta kalitatea bermatzeko beharrezkoa da beraz.

**Aurrera begira egitasmo ugari dituzue. Zeintzuk dira aipagarrienak?**

Literatura Unibertsala bilduma duela 11 urte hasi ginen osatzen eta aurrean bukatzeko asmoa dugu. Orotara 100 liburua itzultitakoak eta lan honek itzulpengintzaren, euskararen eta literaturaren mundurako sekulako garrantzia duela pentsatzen dugu. Euskal itzulpenen katalogoa ere osatzen ari gara. Honek orain arte euskarara itzuli diren liburuaren zerrenda eta bakoitzaren fitxa bibliografikoa jasoko ditu. Irakaskuntzari dagokionez, berriz, munduko literatura euskaraz izateko aukera lantzen ari gara. Denen, asko dira aurrera begira ditugun egitasmoak.

Lehen aipatu ditudan helburuak gauzatzeko, arlo bakoitzari dagokion lan talde bat dago. Bestalde, zerbitzuen artean badira apatzeko bi: bata, web orria. Bertan, besteak beste, elkarteko bazkideen zerrenda agertzen da eta itzultzaileen batek, behar duenean, bertan agertzen direnengana jo dezake. Bestea, itzul posta zerrenda deritzon zerbitzua eskaintzen dugu. Internetek eskaintzen dituen abantailak

#### AMAIA MUNDINANO

Duela 13 urte sortu zen EIZIE. Urte hauetan zehar itzulpengintza sustatzeko hainbat lan egin dute elkarteok eta, aurrerantzean ere, egitasmo ugari dituzte esku artean. Horretaz guztiaz hitz egiteko, Jose Morales lehendakariordearekin izan gara.

**Zeintzuk dira elkartearen helburu orokorrak?**

Elkarteak dituen helburu orokorrak itzultzaileen eguneroko lanari dagokien dira. Euskal itzultzaileak elkarrengana hurbiltzea nahi dugu, elkarten artean egunerokotasunean dituzten arazoak edota kezak konpontzeko eta denon artean elkarlana izateko helburuarekin. Bestalde, itzultzaileen babes juridikoa eta lan baldintzak hobetuz joatea gustatuko litzazuke eta horretan saiatzen gara. Interese ekonomikoan, profesionalen eta sozialen babesa ere lantzen dugu. Prestakuntzaren arloa, era apal batean izan arren, ikastaroen bidez landu dugu. Beraz, helburu gehiago baditugu ere, horietatik dira laburki nagusiak.

**Zeintzuk dira elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak?**

Elkartearen zeregina itzultzaileei egunerokotasunean egiten dituzten lanetarako erabilgarriak diren zerbitzuak eskaintzea da.



Mikel Martinez



Txillardegui

#### Izaera eta irudia

Izaera eta irudia beti berak (edo beti aldean), esan ohi da. Gure artean, ordea, oso ezraz sinesten dute batzuek Uribe edo Sandia erroik «aldatu» direla; eta «ezker muturretik eskuin muturrera» pasa direla. Nik nekez.

Lehendabizi fedea izaten da. Gero datoz profetak. Ez fedea trukatze; lehenagotik hautatuta zegoen fedea hobeki funtsatzeko baiz. Ideiak aldatu daitezke, horretara; adimenaren jarkera aldatzeko. Baina oinarriko hautaketak ez. Nire uste apalean, berriz.

Politikan buruzko teoriak aldatu daitezke gehienez, aldez aurretiko jokabideen oinarriak sendutzeko. Ez besterik. Euskal «ezkerrean» topatzen ditugun «kombentsioak» honela azal daitezke, eta ez bestela.

Ideologia orokorren krisi betean, are garbiago agertzen da hau. Ikuspegi orokortzaileak, «globalak», oso aisa onartzen dituzte estatistek or. Putinek eta Chiracek ez dute batera arazirik beren egitekoan batera etortzeko.

Ez da harritzekoa, horretara, marxista globalizatzaileak oso aisa jarrera estatualtuen alde lerratzera. Ez baita guzkaru kontua. Hamaika autoket azpimarratu dute hau. Estalotarak, bat.

Politika hautua («politika» hautua batez ere, katorxeekin) aldatu egin daiteke. Nazio-hautua, berriz, ez da aldatzen. Are gutxiago globalizazioaren garai honetan. Nazioetasuna ez baita «buruz» eta «gogotaren ondorioz» aldatzen.

Nazio-hautua disimulatu egiten da arrazoietan atzetik. Jantzi, moztortu. Ez besterik. Ermu-ko Foruko «ezkertarek» badakite. Funtsen ados dira Aznarrekin. Beren alde aurretikako hautua España baita, «Una eta Grande». Jakea aldatu ote? Baliteke. Baina hezur mamiak ez.

## Aitzindariak

### PIARRA ETXAHUN

1 7 8 8 6 2



SEHIAREKILAKOA EZ DUTE GURASOEN ONESTEN :  
Maji ARROZPIDE ←edo→ 5 ETXALDEAK.  
ETA PREMAK EZ DU BERE BURUA DESPREMUTU NAHI.

EMAZTEAREN AMORONTEA EZ, BAINA ETXEGOIEN BE RE ZOHIXKIDEA ZAURTU DU ZELATAN, ETA PRESO ETXATU DUTE JANDATMEK.

orduan hasi zitzaion urtebako guzi eta presondegitako arrosariba...

ENGARXI PELENTOREKIN DUTE ESPOSATU, ETA ETXAHUNIAN EZ DIRA KATASKAK SEKULAN ITZULTZEN. MAITASUN KETA EDO, ENGTAKIK XALANTA EDIREN DIZU: HEGIAPHAL AUZOZ.

PIARRAK TIROZ DESARRAIATU DIO HEGIAPHAL, BAI ETA HAIEN ETXEARI SU EMAN ERE...

KARRIKAN DA ORAI ETXAHUN; HERENTZIA, ASKAZIEK BANATU EGIN DUTE ANATTEAN. KARRIKAN, ALO... EZ AMODIORIK EZ ONDASUNIK, KOBLAKA TRAKATZEN DITU ESKUALDEAK ERROMES.

ot Taharnari fidela!  
jüje epalitz igela!  
Avrainak jakill har  
eta hek litzakie kondena,  
Haien etxe lejitimua  
guri saltzen deixela.